



Arrosa eta Aldude lotzen ditu autobusak egunear lau aldiz, oraingoz soilik langileak eramateko. JOANES ETXEBARRIA

Azaroan hasi ziren Arrosa eta Urepele arteko garraio kolektibo berri bat esperimentatzen. Otsailean herritar guztientzat izanen da autobusa, zerbitzu publiko gisara.

## Aldude, aldaketaren esperimentazioan

Joanes Etxebarria Baigorri

**A**ldudeko ibarreko ate irekitzeak bista handiak izaten dira bi urtetatik behin. Baina bestaren gainetik kokatzen da, azken urteetan gutxienez, ibarraren gerroaz gogoetatzeko nahia. 2012. urteko ate irekitzeetan, *Aldude 2030* lelopean, ibarra dinamizatzeo ideia andana bat ateraziren. 2016koetan, berriz, *Herrian laketu* izenburupean, hiru lan ardatz finkatu zituzten, eta ekimenak gauzatu hasi ziren Aldude, Banka eta Urepeleko herritar zein hautetsiak. Hiru ardatzetatik bat mugikortasuna izanik, hortik sortu zen AIBA Aldudeko Ibarra

Beti Aitzina elkarteak kudeatzen duen garraio kolektiboa.

Lehen fasea diagnostiko bat egitea izan zen, «jakiteko nola ibiltzen den jendea, nondik heldu diren hemen lan egitera, hemendik nora joaten diren...»; eta «jendeen beharrak zoin diren» identifikatzea ondotik, Michel Ozafrain Bankako auzapezaren oroitarazi duenez. Ondorio batzuk ateratu zituzten; besteak beste, jadanik dauden garraio kolektiboen inguruko informazio eskasia, autobus eta trenak gutxi erabiliak baitira. «Auto partekatzearen sustatzeko hasi gara egunero bidaia berdina egiten dituzten jendeak zerrendatzen eta haien artean harremanetan ezartzen. Laster, aplikazio bat sortuko

dugu preseski ibarrentzat egina», dio Priscilla Ludovico AIBA elkartearen animatzaileak. Mugikortasuna beste gisa batez plantatzeko bidean, haatik, autobus baten joan-jinak dira pariorik handiena.

AIBA elkarte bat denez eta garraioak kudeatzeko ahal mugatuak izaki, Aldudeko ibarreko lantegiak egin partaidetza batera mugatu da, joan den azarotik hona, ibilgailuaren hedapena. Langileek soilik erabili dezakete oraingoz, garraio pribatu gisara. «Hogei bat erabilzaile dira, eta bidaia bakoitzeko hiruzpalau pertsona dira», laburbildu du, baikor, Ludovicok. Goizean bi bidaia eta arratsaldean beste hainbeste egiten ditu Battitta Maitia gidariak:

«Behetik gora bai baina gainetik behera ez dut bidaiaririk goizez». Astelehenean bi senpenter zermatan lanetik Arrosan utzi autora. «Langileek gogotik hartzen dute, usatuak dira. Baina besteak beste usaiak kanbiatzea besterik da», ziurtatu du Ozafrainek. Horregatik, garraio pribatutik publikora jauzi egingen dute otsailean.

### Desafio berriak

AIBA elkarteak ezin dezakeenez legez garraio publikorik kudeatu, Bankako Herriko Etxeak galdea egin eta kausitu du eskumen berri hori bereganatzea. Ez da ohikoa. «Departamentuan ez du herri batek ere garraioen eskumena»,



### Auto partekatzearen sustatzeko hasi gara jendeak zerrendatzen eta haien artean harremanetan ezartzen»

Priscilla Ludovico  
AIBA elkartearen animatzailea

«Behar da frogatu martxan dela, eta, hala izan dadin, denei eman behar zaie autobus hori hartzeko parada»

Michel Ozafrain  
Bankako auzapeza

ziurtatu du Ozafrainek; eta Frantziako Estatuan «bakarra» dela uste du, berriz, Ludovicok. Dena den, «deabruaren ardura» dela ohartua da Bankako auzapeza: «Eman dezagun Arrosatik Urepele, zer gerta ere, herria da arduradun. Auzapezaren gain da ardura». Parioak, hala ere, merezi du bi partaideen ustez. Ludovicok erabilzailearentzat onurak zoin diren zehaztu du: «Ekonomikoa da, arrisku gutxiago bada, eta atsegina da: jendeen arteko harremanak sustatzen ditu».

Auzapez gisara ardura handia duela ohartua bada ere, Ozafrainek dudarik ez du zerbeitetarako balio duela: «Baldin bada xantza bat HELEParekin esperientzia hori luzatzeko, behar da frogatu martxan dela, eta, hala izan dadin, denei eman behar zaie autobus hori hartzeko parada». Diru iturriak mugatuak baitira. Esperimentazioaren finantzamendua, hasi zenetik eta hemendik sei hilabetera, Europak, Frantziako Estatuak eta eskualdeak ziurtatzen dute, ibarreko herrien ekarpenaz gain.

Desafioa handia izanen da, beraz, Ozafrainen ustez, ondoko hilaurretan garraioaren usaiak aldatzea, «zeren autoa hartzea nahi delarik nahi den lekura joateko, hori libertatea da».